

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



INTERNATIONAL COMMITTEE OF THE RED CROSS ARCHIVES

FAXISTEN ATZAPARRETATIK ASKATU ZITUZTENAK

1936ko irailaren 13an tropa frankistak Donostian sartu ziren. Errepresioak erbestera eraman zituen donostiar asko, beste batzuk atxilotu eta espetxeratu egin zituzten eta ia 400 exekutatu. Gure oroimenean geratu dira frankistak Gipuzkoako hiriburura iritsi zireneko argazkiak, Gros auzotik sartu ziren Artaxoako 40enak, Paulino Uzkudun boxeolaria Askatasunaren Etorbidean tanke batetik agur faxista egiten ageri deneko argazkiak eta beste batzuk, gehienak kolpisten ikuspuntutik ikusita. Batez ere familia artxiboetan gordetako erbestekoak eta erresistentziakoak dira gaur egunera gutxien iritsi direnak. Duela gutxi, Nazioarteko Gurutze Gorriaren artxiboek Euskal Herriko eta Estatuko beste leku batzuetako Gerra Zibilaren argazki batzuk argitaratu dituzte. Irudian, 1937ko uztailan Ondarretako espetxetik Raymond Courvoisier Nazioarteko Gurutze Gorriko ordezkariaren bitartekaritzaren ondoren atera ziren zenbait preso ageri dira, eta haien ondoan Courvoisier bera, besoko batekin.